

Zk-3052

AGINDUA, 2004ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, fondo publikoekin ordaindutako Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen 2004-2005 ikasturterako eskola-egutegia egiteko oinarrizko arautegia zehazten duena.

Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, haien irakaslanak planifika eta antolatzen dituzte. Urte barruan irakaslan horiek burutzeko, beharrezkoa da ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia finkatzea.

Eskola-egutegi hauek burutu eta onartzeko kontutan hartu behar diren oinarrizko arauak zehazteko eskuduntza dauka Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikastetxeen autonomia errespetatuz, beharrezkoa den antolakuntza eta pedagogi koherentzia bermatzeko.

Horiek horrela eta eman zaizkidan eskuduntzez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:**1. artikulua.**— Xedea eta ezarpen-eremua.

1.— Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoetan, 2004-2005 ikasturterako eskola-egutegia burutzeko arauak finkatzea da Agindu honen xedea.

2.— Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetako araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko eta itunpeko guztiei ezarriko zaie Agindu hau.

2. artikulua.— Burutzeko funtsezko arauak.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpekoen eskola-egutegia ondoko honi lotuko zaio:

1.— 2004-2005 ikasturteko klaseak ezingo dira 2004ko irailaren 1a aurretik hasi, ezta 2005eko ekainaren 30a baino beranduago bukatu ere.

2.— Hezkuntza Berezi, Haur Hezkuntza, eta Lehen Hezkuntzako mailetako ikasleek jasoko dituzten ikastorduak eta egunak, gutxienez 880 eta 176 izango dira hurrenez hurren. Egun hauetatik, bakarrik, «San José de Calasanz» eguneko jaia eta herri edo lurraldeko bi jaiegun kendu ahal izango dira. Eguneroko ordutegian ezingo da 30 minutu baino gutxiagoko klaserik izan.

3.— Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailan, ikasturte bakoitzaren iraupena 1.050 ordukoa izango da. Goiz eta arratsaldeaz emango dira eskolak, gutxie-

Nº-3052

ORDEN de 10 de mayo de 2004, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se fijan las normas básicas que han de regular la elaboración del calendario escolar, para el curso 2004-2005, de los centros docentes de los niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco sostenidos con fondos públicos.

Los centros docentes en ejercicio de su autonomía organizan y planifican sus actividades escolares. El desarrollo temporal de las mismas exige la fijación de un calendario escolar para cada curso académico.

Corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación fijar las normas básicas que han de tenerse en cuenta en la elaboración y aprobación de estos calendarios, en orden a garantizar la necesaria coherencia pedagógica y organizativa compatible, en todo caso, con la autonomía de los centros.

En su virtud, y en uso de las facultades que me han sido otorgadas,

DISPONGO:**Artículo 1.**— Objeto y ámbito de aplicación.

1.— Es objeto de la presente Orden fijar las normas que han de regular la elaboración del calendario escolar para el curso 2004-2005 en los centros docentes públicos y privados concertados de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— La presente Orden será de aplicación en todos los Centros docentes públicos y privados concertados ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco que imparten enseñanzas de régimen general de niveles no universitarios.

Artículo 2.— Normas básicas de elaboración.

El calendario escolar ordinario de los Centros docentes públicos y privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco se ajustará a las siguientes normas:

1.— Las clases correspondientes al curso 2004-2005 no podrán comenzar antes del día 1 de septiembre de 2004 ni finalizar después del día 30 de junio del año 2005.

2.— En los niveles educativos de Educación Especial, Educación Infantil, y Educación Primaria, el número de horas y días de docencia directa que recibirán los alumnos y alumnas será como mínimo de 880 y 176 respectivamente. De estos días sólo podrán deducirse el día de San José de Calasanz y las fiestas locales hasta un máximo de dos días. El horario diario no podrá contemplar sesiones de clase de duración inferior a 30 minutos.

3.— En el nivel educativo de Educación Secundaria Obligatoria, la duración de cada uno de los cursos será de 1.050 horas, que se impartirán en jornadas de ma-

nez ere 175 irakastegunetan klase-jardunaldiak izango direlarik. Egun hauetatik, bakarrik, dagokion irakasmailako zaindariaren jaieguna eta ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna, (tutore, irakasle, programa, helburu, ordutegi eta abar), klase-eguntzat hartu daitezke. Aparteko deialdiko azterketak ekainean egingo dira, 175 eskola-egunak amaitu ondoren.

4.- Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako mailetan, ikasturteak 175 irakastegunetako iraupena izango du gutxienez. Eragin hauetarako, klasea emateko egunak (160 gutxienez) eta ohizko eta aparteko deialdietako azken probak eta ebaluazioak egiteko erabiltzen direnak besterik ez dira irakastegunak izango.

Aipatutako klaseko 160 egunak benetan irakasteko izango dira, beraz ezingo dira gainditu gabeko irakaskaiak dituzten ikasleei azterketak egiteko erabili; ezta ebaluatze batzordeak, klaustroak edo antzeko ekintzak egiteko ere. Dagokion irakasmailako zaindariaren jaieguna eta ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna, (tutore, irakasle, programa, helburu, ordutegi eta abar), klase-eguntzat hartu ahal izango dira.

Heziketa zikloen egutegia egiteko Ziklo bakoitzak zenbat iraungo duen hartuko da kontuan. Beraz, ez da nahikoa izango klasea emateko gutxienezko 160 egunak betetzea, baizik eta ikasle guztiek dagozkien Heziketa Zikloen arauzko ordu guztiak jasoko dituztela ziurtatuko da.

Batxilergoko maiatzeko eta ekaineko eskola-egutegia ikastetxeek erabakiko dute, kontuan harturik Unibertsitatean sartzeko 2004-2005 ikasturteko probak ekainaren erdi aldera (ohiko deialdia) eta uztailean (ez-ohikoa) egingo direla.

Batxilergoko 2. kurtsoko ohizko deialdiaren azken probak eta dagozkien Ebaluaketa-Batzarrak egin eta gero, klase-emankizunek aurrera jo beharko dute, Selectibitate-proba gertatzeko. Klase hauek ikastaldeko ikasle guztientzat irekita egongo dira, baita kurtsoa gainditu ez duten ikasleentzat ere. Egun hauek eta Batxilergoko aparteko deialdiari dagozkion azterketak prestatzeko erabili litezkeen egunak, klase-eguntzat hartuko dira.

5.- Ezinbestekoz klase-egun kopurua gutxituko bultz, berregokitu egin beharko da egutegia aipatutako egun kopurura iritsi arte, beti ere langileen eskubideak errespetatuz. Nahiz eta egunen batean ikasle batzuk edo ikasle guztiak klasera ez doazen, Ikastetxeak klaseak ofizialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.

Egutegia berregokitu behar denean hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da.

ñana y tarde, con un mínimo de 175 días lectivos. Pueden tener consideración de lectivos el día de la fiesta patronal del nivel correspondiente y el día dedicado a presentación del nuevo curso, (tutores, profesores, programas, objetivos, horarios, etc.). Las pruebas de la convocatoria extraordinaria se celebrarán en el mes de junio, una vez finalizados los 175 días lectivos.

4.- En los niveles educativos de Educación Secundaria postobligatoria el curso escolar tendrá una duración mínima de 175 días lectivos. A estos efectos, tendrán la consideración de días lectivos únicamente los destinados a la impartición efectiva de clases, que deberán ser 160 como mínimo, y aquellos que se dediquen a la realización de las pruebas y evaluaciones finales de las convocatorias ordinaria y extraordinaria.

Los 160 días de clase mencionados serán días de clase efectiva y no podrán suspenderse las clases para realizar exámenes a los alumnos/as con asignaturas pendientes, juntas de evaluación, claustros y otras actividades análogas. Pueden tener consideración de lectivos el día de la fiesta patronal del nivel correspondiente y el día dedicado a presentación del nuevo curso, (tutores, profesores, programas, objetivos, horarios, etc.).

El calendario correspondiente a los Ciclos Formativos se establecerá teniendo en cuenta la duración de cada Ciclo. No será suficiente, por tanto, con establecer como mínimo los 160 días de impartición efectiva de clases, sino que habrá que garantizar que a todos los alumnos/as se les imparte el cómputo total de horas que corresponde reglamentariamente a cada Ciclo.

Los centros determinarán el calendario lectivo de los meses de mayo y junio del Bachillerato teniendo en cuenta que en el curso 2004-2005 las pruebas de acceso a la Universidad se celebrarán a mediados de junio (Convocatoria ordinaria) y en el mes de julio (Convocatoria extraordinaria).

Una vez realizada la evaluación final de la convocatoria ordinaria en el segundo curso de Bachillerato, se seguirán impartiendo las clases como preparación para la prueba de Selectividad y estarán abiertas también a los alumnos/as suspendidos. Estos días tendrán la consideración de días lectivos, así como los días que se dediquen a la preparación de las pruebas correspondientes a la convocatoria extraordinaria de Bachillerato.

5.- Si por razones de fuerza mayor se viese disminuido el número de días de clase, se reajustará el calendario para completar el número de días previsto, respetando en cada caso los derechos laborales de los trabajadores. Las ausencias de los alumnos/as de las clases, incluso en el caso de ser colectivas, no deben impedir al Centro seguir ofertando las clases según los horarios oficialmente programados.

En los casos de reajuste del calendario se seguirá el mismo procedimiento que en la elaboración inicial del mismo.

Dagokion Aginte-organoak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin dezan eskatuko dio. Erantzunik ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egutegia berregokitu eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

6.– a) Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Lan-Egutegian jai diren egunak, eta herri lurralde eta dagokion irakasmilako zaindariaren jaiegunak, horrela hartuko dira Eskola-Egutegian.

b) Herri edo lurraldeko zaindarien jaiegunak lane-ko ez den egun batean ospatzen direnean, jaia ospatzeko beste eguna hautatu ahal izango da, egun horren orde. Horrek ez du esan nahi Bigarren Hezkuntzako mailetan egun horiek benetako eskola-eguntzat hartu ahal direnik.

c) Dagokion irakasmilako zaindariaren jaieguna, egun horretatik hurbilen dagoen astelehenean edo ostiralean ospatu ahal izango da.

d) Irakasmila bat baino gehiagoko ikastetxeek egun berberean ospatu ahal izango dute irakasmila guztien zaindarien jaieguna.

7.– a) Eguberritako oporraldiak 2004ko abenduaren 24tik 2005eko urtarrilaren 6rarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

b) Aste Santuko oporraldiak, 2005eko martxoaren 24tik 28ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

8.– Irakasmila bat baino gehiagoko ikastetxeak irakasmila ezberdinei dagozkien eskola-egutegiak harmonizatzen ahaleginduko dira. Halaber, udalerrri, inguru edo eskualdeko ikastetxe guztien eskola-egutegiak harmonizatzen ahaleginduko da.

3. artikulua.– Tramitazioa.

1.– 2004ko ekainaren 10a baino lehen, Ikastetxeen Zuzendariak eskola-egutegiaren proposamena bidaliko diote dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzari, eskuduntza duen Aginte-Organoak onartu zuen bilerako aktaren kopiaarekin.

2.– Hezkuntzako Ikuskaritzak, egutegiak aztertu ondoren, egutegi bakoitzari txostena egingo dio.

Ikastetxeren batek finkatutako epealdiaren barruan eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez denean, Hezkuntza Lurralde Ordezkariek erabakitzen duena esleituko zaio.

3.– Behin Hezkuntza Lurralde ordezkariek egutegiak onartu eta gero, ikastetxe publiko eta itunpeko guztiek bete behar dituzte, ikastetxearen zuzendariak betetzeko erantzukizuna izango duelarik eta betetzearen kontrola eta gainbegiratzea Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokiolarik.

Si el Órgano de Gobierno competente no hiciese la propuesta de reajuste, la Inspección de Educación demandará su elaboración. En caso de no tener respuesta, la Inspección de Educación reelaborará el calendario y lo comunicará al Centro.

6.– a) Serán festivos los días que tengan ese carácter en el calendario laboral de la Comunidad Autónoma así como los días de las festividades patronales de la localidad, del territorio y del nivel educativo correspondiente.

b) Aquellos Centros en los que las festividades patronales de la localidad o del territorio coincidan con un día no laborable, podrán elegir otro día en su sustitución. Estos días no podrán contabilizarse dentro del cómputo de los días de impartición efectiva de clases en ninguno de los niveles de la Educación Secundaria.

c) La fiesta patronal del nivel educativo podrá trasladarse al lunes o viernes más próximo al día de su celebración.

d) Los Centros que imparten más de un nivel de enseñanza podrán unificar en un solo día la festividad patronal de los distintos niveles educativos.

7.– a) Las vacaciones de Navidad comprenderán al menos el período comprendido entre el día 24 de diciembre de 2004 y el 6 de enero del año 2005, ambos inclusive.

b) Las vacaciones de Semana Santa incluirán al menos los días comprendidos entre el 24 y el 28 de marzo del año 2005, ambos inclusive.

8.– Los centros que impartan diversos niveles de enseñanza procurarán armonizar los calendarios correspondientes a los mismos. Asimismo, se procurará armonizar los calendarios escolares de los distintos centros de un mismo municipio, zona o comarca.

Artículo 3.– Tramitación.

1.– Los Directores/as de los Centros remitirán la propuesta de calendario a la Delegación Territorial de Educación correspondiente antes del día 10 de junio de 2004, incluyendo copia del acta de la sesión en que fue aprobada por el Órgano de Gobierno competente.

2.– La Inspección de Educación procederá a informar de todos y cada uno de los calendarios, previo estudio de los mismos.

En el caso de que algún Centro no remita su propuesta de calendario dentro del plazo señalado, o no se apruebe su propuesta, se le adjudicará de oficio el calendario que fije el correspondiente Delegado/a Territorial de Educación.

3.– Los calendarios, una vez aprobados por el Delegado/a Territorial de Educación, serán de obligado cumplimiento para todos los Centros públicos y privados concertados de la Comunidad Autónoma siendo responsabilidad del Director o Directora del Centro su cumplimiento y correspondiendo a la Inspección de Educación la supervisión y control de su aplicación.

4.– Ikastetxe bakoitzeko eskola-egutegia bertako iragarki-taulan jarri behar izango da erakusgarri, eta ezin da inolaz ere aldatu, dagokion aginte-organoak aurretik egindako eskabidea, Hezkuntzako Ikuskaritzak idatziz onartu gabe.

AZKEN XEDAPENAK

Lebena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 1997ko ekainaren 27an emandako Aginduaren 24. artikuluan 4. paragrafoa aldatzen da. Agindu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan batxilergoaren ezarketa orokorra arautzen da. Aipatutako paragrafoa honela geratzen da:

«24.4. artikulua.– «Jakintzagairen batean balorazio positiborik lortu ez duten ikasleek aparteko deialdi baterako eskubidea izango dute. Deialdi hori ekainean egingo da».

Bigarrena.– Hezkuntza sailburuordeari eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari baimena ematen zaie, Agindu honetan xedatutako aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 10a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

Zk-3053

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «Agindua, 2004ko maiatzaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hainbat ondasun homologagarritzat jotzen dituen».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2 a) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testu argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

4.– El calendario de cada Centro debe estar expuesto en el tablón de anuncios del mismo y en ningún caso podrá ser modificado sin el permiso escrito de la Inspección de Educación, previa solicitud del Órgano de Gobierno competente.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se modifica el apartado 4 del artículo 24 de la Orden de 27 de junio de 1997, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se dispone la implantación generalizada del Bachillerato en todos los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El citado apartado queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 24.4.– Los alumnos/as que no hayan obtenido valoración positiva en alguna materia tendrán derecho a una prueba en convocatoria extraordinaria, que se realizará en el mes de junio».

Segunda.– Se autoriza a los Viceconsejeros de Educación y de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente a dictar cuantas disposiciones sean precisas para la aplicación y desarrollo de lo dispuesto en la presente Orden.

Tercera.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2004.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

Nº-3053

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 12 de mayo de 2004, de la Consejera del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, por la que se declaran homologables determinados bienes.

El artículo 24.2 a) del decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.